

Euskal federalismo foruzalea Seiurteko Demokratikoan (1868-1873)

Jurgi Kintana Goiriena, Iñaki Alfaro Bergaratxea
Historian lizentziatuak

Artikulu honetan Hego Euskal Herriko errepublikar federalen foruzale-
tasuna aztertzen da Seiurteko Demokratikoan (1868-1873). Bereziki hiru
mugarri ikertzen dira: J. Jamarren *Lo que es el Fuero* liburua (1868), Eibarko
Itun federala (1869) eta J. Arreseren *La descentralizacion universal* obra
(1873). Horien bidez euskal errepublikarrek Foruez egindako intpretazio
aurrerakoia jorratzen dugu, garaiko testuinguruan kokatuz.

This article investigates the foralism of Basque republican federals during the
Spanish Sexenio Democratico (1868-1873). It specially analyzes three moments: J. Jamar's
Lo que es el Fuero work (1868), the Federal Pact of Eibar (1869) and J. Arrese's *La
descentralizacion universal* book (1873). By this works the article try to understand the
particular interpretation of Fueros done by Basque republicans, in the context of the
epoque.

Sarrera

Espainiako liberalismo printzipioz monarkikoa, XIX. mendeak aurrera egin ahala, talde desberdinetan banatuz joan zen. Oso goiz liberal aurrerakoiak (edo exaltatuak) eta liberal moderatuak (edo kontserbadoreak) bereizi ziren. Laster liberal aurrerakoen artean korrante demokrata bat eratu zen. Demokraten multzoan joera errepublikarreakoak zein monarkikoak biltzen ziren. XIX. mendearen erdialdean oraindik, aurrerakoiak, demokratikak eta errepublikarrak ez ziren guztiz bereizten. Horregatik aurrerakoi edo demokrata esatean, horren baitan errepublikarrak zeudela ulertu behar da. Azkenean, 1868ko iraultzak eman zien aukera errepublikarrei ordura arte demokrata monarkikoekin mantendutako batasuna hautsi eta talde propioak eratzeko. Errepublikar gehienek, Francesc Pi i Margall katalanaren inguruan bilduta, joera federalista hartu zuten. Errepublikanismoaren ikuspegi federala hain nagusitu zen non “errepublikar” eta “federalista” baliokide bihurtu ziren. Hego Euskal Herrian ere azaldu ziren errepublikar federalak, nahiz talde aski txikia izan liberal monarkikoen edo karlisten aldean. Beharbada, horregatik, Euskal errepublikarren bilakabidea gutxi aztertu izan da oraino. Javier Fernández Sebastiánek (1988) artikulua bat eskaini zien Seiurteko Demokratiko aurreko bilbotar errepublikarrei. Eta 1868-1873 epean sartuta Mikel Urquijoren doktoretza-tesiak atal bat eskaintzen dio Araba, Bizkai eta Gipuzkoako errepublikanismoari¹. Beste historialari batzuen eskutik euskal errepublikar jakinen gainean egindako bibliografia batzuk ere aurki daitezke².

Asko dira errepublikarren inguruan ikertzeke dauden auziak: protagonistak, antolaketa eta eragin soziala, helburuak eta programa... Guk artikulua honetan euskal errepublikar federalen arlo teoriko-ideologikoa landu dugu batik batik. Mugimendu politikoaren gorabeheretan ez gara sartu, salbu produkzio teorikoa bere testuinguruan hobeto kokatzeko. Euskal errepublikarrek utzitako agirietatik (liburuak, batzarretako aktak, aldizkariak, etab.), guk parte txiki bat baino ez dugu erabili. Zehazki, Espainiako Seiurteko Demokratikoan (1868-1873) euskal federalismoaren erakusgarri izan zitezkeen hiru obra landu ditugu. Horietatik bi lan teorikoak dira, bata garai iraultzailea irekiz eta bestea itxiz argitaratuak: Joaquin Jamarren *Lo que es el Fuero* (1868) eta Julian Arreseren *La descentralización universal* (1873). Liburu horietan agertzen ziren ideiek euskal federalisten artean oihartzuna zutela erakusteko, hauen ekintza nagusietakoa, 1869ko Eibarko ituna, eta horren ondotik sortutako *Laurac-Bat* egunkaria aztertu ditugu. Gure ikerketaren emaitza mugatua da ezinbestez. Material dexente gelditu zaigu aztertzeke³. Edozein kasutan, artikulua honetan, euskal errepublikar federalen ideia nagusiak eta euren foruzalatasuna ulertzeko lehen hurbilpen bat eskaini nahi dugu.

1. Cf. “Los republicanos” atala in Urquijo (1994: 167-179).

2. Serafin Olabe nafarrak cf. Paredes (1983); Ricardo Becerro de Bengoa arabarrak cf. Ortiz de Orruño (1991); Arturo Campion nafarraren abiapuntu federalistaz cf. Huici Urmeneta (1980); eta beste zenbait nafar errepublikarrez cf. García Sanz (1985). Ikus diputatu errepublikarren datuak in Agirreazkuenaga *et al.* (1993).

3. Gure lanean erabili ez arren, hurrengo ikerketetan jorrazteko interesgarriak izan daitezkeen dokumentuen artean, seinalagarriak dira euskal egunkari eta aldizkari errepublikar federalak: *Federación, Periódico Republicano* (Bilbo 1869tik); *El Federal Alavés* (Gasteiz 1873 aldera); *El Cantón Vasco* (Gasteiz 1873 aldera); eta jada Seiurteko Demokratikotik kanpo, Bilboko *Euskaldun-Leguía* (1881etik). Azken aldizkari horren bilduma nahiko osoa Gasteizko Sancho el Sabio Fundazioan aurki daiteke. Gainerako aldizkariaren aipua Mikel Urquijori hartu dizkiogu (1994: 167, 172).

1. Federalismo foruzalearen jatorriak

1.1. Foruen irakurketa aurrerakoa

Nola bereganatu ahal izan zuen federalismo errepublikarraren moduko doktrina printzipioz iraultzaile batek Forua bezalako zuzenbide historiko tradizional baten defentsa? Gai hau historiografian gutxi landu da. Nolanahi ere, Fernández-Sebastiánen artikuluak federalismo foruzale horren aurreneko pausak aztertzen dizkigu.

Aro Berriaren azken aldiko zenbait ilustratuk, foru-antolaketa ideia paktisten eta kontraktualisten aitzindari gisa interpretatzera jo zuten. Liberal batzuek ere, euskal mito igualitaristak segituz, Foruetan askatasun eta berdintasun idealen izpiritua ikusi zuten. Lerro horretatik sortu zen lehen karlistada osteko euskal liberal moderatuen foruzaletasuna. Liberal moderatu horiek Foruetan tradizioaren eta liberalismoaren arteko oreka ikusirik, 1844 eta 1876 artean, foru-erregimena biziberritu eta indartu egin zuten. Foruzaletasun apalki liberal horretan sakondu besterik ez zen egin behar, Foruetan elementu aurrerakoi gutxi batzuk barik, demokraziaren eta errepublikaren aurrekari osoak ikusteko. Dena den, Seiurteko Demokratikoaren garaia hurbildu arte, Espainiako liberal aurrerakoi eta demokrata gehienek (Hego Euskal Herrikoak barne) jarrera jakobinoa, unitarioa eta Foruen aurkakoa agertu ohi zuten. Foruen aldeko aurrerakoiak gutxiago ziren. Baina hala ere, kontuan hartzekoak dira, euren hari finetik finkatu baitzen foruzaletasuna demokraten eta errepublikarren artean⁴. Lehen orduko salbuespen horien artean aipagarria da José María Orense kantauriarraren kasua. Espainiako alderdi demokrataren sortzaileetakoa izanik, 1859an, Foruen aldeko liburuska bat argitaratu zuen, euskal Probintzien erregimena mantentzea ez ezik, euren eredia Espainia osora zabaltzea proposatuz:

Como la idea de la igualdad es tan fuerte en este siglo, al contemplar los fueros de las Provincias Vascongadas se han formado dos opiniones, que ambas terminan en la igualdad. Han dicho los mas ¿por qué ha de haber tales privilegios, fueros ó distinciones? Que los vascongados paguen y sean gobernados como nosotros; esto es, seamos iguales, en mal sentido, perdiendo ellos para ser iguales. Han dicho los otros, y yo siempre he sido de estos, tomemos lo bueno en donde se halle, apliquemos á Castilla y demás provincias de España los fueros vascos, y tendremos la igualdad en el buen sentido. (...)

Veamos las ventajas económicas y políticas que nos llevan los vascongados. No tienen quintas ni matrículas, (...) No tienen estancos de tabaco y sal, ni papel sellado (...) En política tienen los vascongados la verdadera autonomía Provincial. Sus autoridades forales son hijos del país, tienen un mando temporal, electivo y sometido á juntas generales, que se reúnen para manifestar su aprobacion ó censurar los actos de los gobernantes.

4. Ikus Fernández Sebastián (1988: 18-19, 11. oharra).

La Constitución de 1812 quiso imitar esto en las Diputaciones Provinciales; pero ni aquellas, ni mucho menos las de los moderados (cadáver de la representación provincial) han podido llegar, ni con cien leguas á la institución vascongada, porque las juntas generales son el complemento necesario de este sistema, y de ellas ni siquiera se hablaba en la Constitución de 1812 y menos en las siguientes. (...)

Sus fueros, es decir, su Constitución escita un amor tan sincero como profundo (...)

La centralización, esta plaga francesa que ha aniquilado la idea de la provincia y del municipio, que hace que toda la sangre del cuerpo vaya á la cabeza, (...) es planta que han rechazado los fueros, y han evitado el tejer y destejer del resto de España. Ya todos, ó casi todos (...) comprenden lo atinados que estuvieron los ingleses y norte-americanos en rechazar la idea funesta de la centralización (...)

El sistema de los fueros aplicado á todas las provincias, simplifica notablemente (...) el Gobierno. Así se curaría el gran mal en todos ó parte y se llamaría á otro campo el remedio⁵.

Pasarte nahiko luzea transkribatu dugu, Orenseren ideia foruzaleak argi erakustea merezi zuelako. Izan ere, antzeko ideiak errepikaturik aurkituko ditugu geroagoko euskal federalisten ideologian. Hein horretan Orenseren lana euren aurrekari zuzena izan zen.

Hego Euskal Herrian foruzaletasun federalista 1865etik hasi zen garatzen, Fernández-Sebastiánek ikerturiko *Eco Bilbaíno* egunkari demokrata-errepublikarraren inguruan. Urte horren erdialdera, *Eco Bilbaíno* egunkaria publikazio politiko bihurtu zen. Egunean bertan, erredakzioko buruetako batek, Cosme Etxebarrietak, Forua absolutismoarekin bateraezina zela, eta Foruak funtsean askatasun eta demokrazia-erregimenak zirela zioen artikulua idatzi zuen. Foruen eta demokraziaren bateratasuna ez zen sekula hain esplizituki planteatu, eta ohiko gaia izan zen Bilboko egunkarian. Foruzaletasun errepublikar honek zabalkunde azkarra izan zuen Hego Euskal Herrian Seiurteko Demokratikoaren atarian (Fernández Sebastián, 1988: 22-25). Gainera Espainiako errepublikar nabarmenen onespina jaso zuen. Gorago aipatutako José María Orensek, adibidez, 1868ko iraultza ostean alderdi demokrata utzi eta alderdi errepublikar federalaren sortzaile eta buruetako bat bihurtzean, hasierako jarrera foruzalea mantendu zuen. Beste horrenbeste gertatu zen Emilio Castelar eta Pi i Margall moduko lider errepublikarrekin (Fernández Sebastián, 1988: 28). Izatez, garai horretan, federalismoari buruzko lan teoriko sakonen faltan⁶, foru-probintziak Espainia federalizatzeko eredu gisa aipatu ohi zituzten Estatu osoko errepublikarrek.

1.2. Federalismo foruzalearen arazo teorikoak

Seiurteko Demokratikoan euskal errepublikarrek Foruez egindako irakurketak aztertu aurretik, aipa ditzagun egungo ikertzaileek “aurrerakoitasun” eta “foruzaletasun” ideien artean ikusi dituzten arazo batzuk. Hola, esan dugunez,

5. Orense (1859: 5-18) [Testua, orain Huici Urmeneta eta Madariaga (1989: 3. libk., 669-671) lanean].

6. Federalismoari buruzko obra mardulena, Pi i Margallen *Las nacionalidades*, ez zen 1876 urtera arte argitaratu, hau da, Seiurteko Demokratikoa jada igaroa zenean.

espainiar eta euskal errepublikarrek foruzaletasuna federalismoarekin parekatzen zuten. Baina, Fernández Sebastiánek dioenez foru-erregimenen autogobernu-kontzeptio tradizionala eta federalismo errepublikarrarena arras desberdinak dira: Ikuspegi tradizioanalean, foru-probintzien autonomia euren legeria historikoaren iraupenean justifikatzen zen; Federalismo iraultzailean, lurraldeen autonomia herriaren subiranotasunetik jaiotako antolaketa politiko berri baten fruitu zen (normalean "itun federal" deitzen bidez). Ikuspegi tradizionalean, lurraldeen subiranotasuna jarraitasun historikoan justifikatzen zen, bertako biztanleen aldeko edo kontrako borondatearen gainera; ikuspegi errepublikar federalean, aldiz, lurraldearen subiranotasuna bertako biztanleen nahiak sortua da. Horregatik benetako federalismoa eta sasifederalismo monarkiko deitua bereizi beharko lirateke. Lehena ideal iraultzaileetatik sortua litzateke, bigarrena Estatu liberal zentralistaren aurkako erreakzio tradizionalista gisa agertuko zen. Azken horren adibide lirateke Espainiako karlisten foruzaletasuna, edota Frantziako Hippolyte Taine-k edo geroago Charles Maurras-ek garatu zituzten ideia erregionalistak. Hortaz, aurrerakoi federalisten jarrera foruzalea nahiko kontraesankorra litzateke (Fernández Sebastián, 1988: 24).

Fernández Sebastiánen ildo beretik, eta haren onespenearekin, Jon Juaristik (1998: 174-175) foruzaletasuna ideologia intrinsekoki atzerakoia dela adierazi izan du: «Fueros y democracia, como bien habían comprendido los moderados, son incompatibles». Juaristirentzat, Foruetan absolutismoaren aurkako erregimena eta askatasuna zekusatzen liberal aurrerakoi eta errepublikarrak nahasturik zebiltzan:

La raíz del equívoco se halla en una asimilación del conflicto entre absolutismo y liberalismo a las tensiones, propias del Antiguo Régimen, entre la monarquía absoluta y los residuos de los privilegios medievales. Cuando tradicionalistas "antiabsolutistas" (...) condenan el absolutismo en nombre de los "derechos históricos", lo hacen desde unas posiciones más contrarrevolucionarias aún que el propio absolutismo. En otras palabras, rechazan y condenan lo que el Estado absoluto tiene de moderno: la unificación jurídica, la centralización administrativa, etc. (Juaristi, 1998: 177).

Juaristiren azalpenaren arabera, historiak aurrerapen-lerro zuzena segitzen du: hasteko, Erdi Aroan, pribilegiozko erregimenak zeuden (Foruak); ondoren, Aro Berrian, absolutismoak batasun juridikoa ezartzera jo zuen; azkenik, Aro Garaikidean erregimen liberala ezarri da. Zenbat eta sistema berriagoa, orduan eta aurrerakoiagoa (eta zentralizatuagoa). Beraz, Erdi Arotik datozen Foruak Aro Garaikidean mantendu nahi izatea automatikoki anakronikoa eta atzerakoia litzateke (logikoki karlisten eta liberal moderatuen kontua). Eta aurrerakoiek akats larria egingo lukete Foruen eta absolutismoaren arteko gatazka, liberalismoak absolutismoarekin zuenarekin nahastean.

Fernández Sebastián eta Juaristi bat datoz euskal aurrerakoiek Foruen irakurketa deforma egin zutela esatean. Erdi Arotik zetozen kontzeptu foralak ("askatasuna", "biltzarra", "demokrazia"...) zentzu liberal berrien arabera interpretatzen zituzten, eta ez jatorriz Foruak idatzi ziren garaian zuten zentzuaren arabera.

Ustezko kontraesan teoriko horiek, praktikan baina, arazo handirik gabe gainditzen ziren. Egungo ikerketa desberdinek agertzen dutenez, 1839tik 1876ra, Isabel II.aren agintaldi liberal moderatuan, Hego Euskal Herriko euskal herrialdeek

beren autogobernua indartu, eta Espainiaren baitan nolabaiteko Estatu federatu gisa kokatzea lortu zuten⁷. Bartolomé Clavero zuzenbide-historialariak *federalismo vergonzante* deitu dio egoera horri. Izan ere, espainiar Konstituzioek federalismo hori onartu ez arren, *de facto*, 1839ko foruen Legea baliatuz euskal herrialdeak ia Estatu federatu gisa aritu ziren⁸. Horrek ez du esan gura foruzale guztiek printzipio politiko gisa federalismoa aldarrikatzen zutenik; are gutxiago, ikuspegi errepublikar-iraultzailearen arabera federalismoa nahi zutenik. Izan ere, bereizi beharra dago batetik federalismoa ideologia gisa (Fernández Sebastiánek azaltzen duen doktrina aurrerakoi hori), eta bestetik federalismoa Estatuak eta lurraldeak antolatzeko teknika juridiko praktikoko gisa ulerturik (errepublikarrek, liberal moderatuek, karlistek edo beste edozeinek planteatu zezakeena). Euskal herrialdeetako federalismoa bigarren mota horretakoa zen: oro har gogoeta teoriko sakonik gabekoa, baina errealitatean gauzatu egiten zena. Garaikoeak, behintzat, errealitate ia federal hori argi zekusaten. XIX. mende erdialdeko gobernadore zibil batek, adibidez, hola deskribatzen zuen, disgustaturik, euskal probintzien egoera:

Si se les cogiera a las provincias vascongadas, y se las trasladara a la América del Norte, serían otros tres estados independientes más, que entrarían a constituir parte de la unión americana, sin tener que hacer la menor innovación, porque son países que se gobiernan por sí mismos; y cumplirían aun con enviar sus diputados a Wassinpton [sic] como aquí los envían a Madrid⁹.

Claverok dioenez (1990: 45), «Hay en suma, al abrigo de la ley de los Fueros, unas prácticas federales, pero faltaba en cambio, por virtud de una Constitución [española], la base federal». Izan ere,

7. Nahasketa terminologikoak ekiditeko, "Estatu federal" deituko diegu federazioaren bidez hainbat lurralde elkartzen dituzten Estatu orokorrei (adibidez AEB, Suitza edo Alemania), eta, aldiz, "Estatu federatu" (edo "Kantoi") elkarte horiek osatzen dituzten lurraldeetako bakoitzari (adibidez Kalifornia, Grissons edo Bavaria).

8. 1839ko Foru Legearen lehen artikulua honela dio: «Se confirman los Fueros de las Provincias Vascongadas y de Navarra, sin perjuicio de la unidad constitucional de la Monarquía». Beraz, Foruak baieztatzen egiten ziren, baina Konstituziopean. Legearen bigarren artikulua Foru horiek moldatzeko betebeharra eranstzen zuen. Nafarroak, 1841ean "moldatu" zuen bere erregimena, Diputazio sendo bat lortuz. Hiru probintziak uko egin zioten moldaketa hori egiteari, baina 1841ean zenbait erakunde indarrez kendu zitzaizkien: aduanak, antolaketa judiziala, pase forala, etab. Alta, 1844tik 1876ra, gainerako erakundeak (bereziki Batzar Nagusiak eta Diputazioak) mantendu eta sendotu egin ziren. Izan ere euskal probintziak 1839ko foruen legea, Lege Konstituyente gisa interpretatu zuten, hau da, Konstituzioari egindako eranskine gisa, zeinen arabera Foruak bermaturik geratzen ziren monarkiaren baitan; eta Lege hartan oinarrituz Estatuak administrazioaren arloren bat eraiki nahi zuen bakoitzean, euskal Diputazioek beren gain hartzen zuten (ez tentsiorik gabe): polizia gehiago behar zela, bada hiru probintzietan guardia zibila barik polizia forala ezarriko zen; desamortizazioa egin behar zela, bada Diputazio foralek egingo zuten; estatistika jaso behar zela, bada Diputazio foralak arduratuko ziren; obra publikoak egin behar zirela, bada Diputazio foralen kargu; etab. Era horretara euskal herrialdeek administrazio hazkorra garatu zuten, Estatuaren baitako "barne Estatuak" izan balira bezala. Gainera, Madriletik harremanetan botere-erlazio federal gisakoa ezarri nahi izan zuten. Hori guztia euskal liberal moderatuek bideratu zuten, batzuetan espainiar liberal moderatuekin gatazkan, bestetan haiekin nolabaiteko adostasuna lortuz. Foralitate Liberal edo Foralitate Berri deitu den egoera honetaz cf. Agirreazkuenaga (1987), (1993), (1999), Clavero (1985), (1986), (1990), Fernández (1985), Fernández Albaladejo (1982), Martínez Rueda (1995), Mina (1981), Monreal (1986), Portillo (1987), Portillo eta Ortiz de Orruño (1990) edota Rubio (1997).

9. Patricio Azkarate gobernadore zibil ohiak 1856an Espainiako erreginari kexuz idatzitako testu hau Agirreazkuenagari hartu diogu (1999: 136-137).

El federalismo era cosa de dos: no sólo de Fueros, sino también de las Constituciones. Este era el impulso que al contrario que en Suiza o en Norteamérica, aquí fallaba. El problema estaba históricamente (...) antes en la parte constitucional que en la foral. A ella [a la Constitución española] por su fundamento específico de libertades y derechos, le correspondía definir y ofrecer una base de encuentro e integración. Y no lo hacía (Clavero, 1990: 43-44).

Araza ez zen, Juaristik eta Fernández Sebastiánek agertzen duten bezala, erregimen “moderno” (konstituzionala edo demokratikoa) Foru tradizionalekin bateragaitza zela. Gobernadore zibilak zioen legez, euskal herrialdeak (eta horien Foruak) arazo handirik gabe sartu ahalko ziren AEBetan (haren Konstituzio federal “modernoaren” baitan). Baina Espainian, Estatu zentralak ez zuen halako Konstituziorik eskaintzen. Espainian, Konstituzioaren funtsa ez ziren eskubide indibidualak, baizik Estatuaren boterea. AEBetan edo Suitzan, Konstituzioen xede nagusia beren herritarren eskubideak bermatzea zenez, behin hori lortuta ez zegoen arazorik federazioko estatuei edo kantoiei, autogobernu zabala aitortzeko. Aldiz, Espainian, xedea Estatu zentrala indartzea izanik, ez ziren errespetatu nahi ez eskubide indibidualak, ez lurralde historikoen eskubide kolektiboak (Clavero, 1990: 46-49). Hortik dator euskal errepublikarrek arazo handirik gabe lotzea eskubide indibidualen eskaria eta eskubide foral kolektiboena: biak ere ordura arteko monarkiak Estatu zentralaren faboretan mugatu gura zituela interpretatzen zuten (foruen auzian murrizketa handirik lortu ez bazen ere).

Eta zentzu berean, Espainiako Konstituzio moderatuek, eskubide indibidual oso gutxi ahalbidetzen zuten, aurrerakoiek Foruetan bilatzen zituzten norbanakoen eskubideak. Izan ere, Foruek historikoki zenbait askatasun eta garantia eskaintzen zituzten (salmenta-askatasuna, torturen galarazpena, legezko epaiketak, etxearen bortxaezintasuna...), eta ez zen zaila garantia horiek, hoberik ezean (Konstituzioak behintzat ez zituen eskaintzen), ikuspegi liberal batetik irakurtzea, zentzua eraberrituz. Claverok dioenez (1990: 56) «Los textos vascos no se forzaban. Simplemente se leían y entendían». Hori egitean, Forua garaiko beharrianen arabera interpretatzen zen, beti egin zen bezala. Zeren Foruak, Antzinako Erregimenetik zetozen zuzenbide historikoetan ohi zenez, ez ziren interpretazio bakarrek testuak (Konstituzioak legez), baizik usadio, beharrian eta jurisprudentziaren bidez, garai eta egoera bakoitzera egokitzeko gaitasuna zuten ordenamendu juridikoak. Hortaz, letra aldatu gabe zentzua aldatzen zen: «Puede ser derecho nuevo la ley vieja» (Clavero, 1990: 52). Eta moldagarritasun horri esker, iraun ahal izan zuten Foruek hain denbora luzez eta hain baldintza politiko desberdinen pean: Antzinako Erregimenean, liberalismo moderatuarekin, liberalismo aurrerakoiekin eta abarrekin. Halaber, horregatik zen posible foruzale gisa agertzea karlista bat, liberal monarkiko bat edo errepublikar federal bat, bakoitzak Forua bere erara interpretatzen zuen eta.

Guk, beraz, euskal errepublikarren foru-irakurketa ikusiko dugu, besteena bezain posible eta zilegi zena. Zeren Forua ez baita “berez” atzerakoia edo aurrerakoia, ezta “intrinsekoki” absolutismoa baino erreakzionarioagoa ere. Kontzeptu horiek beraiek aski labainkorak dira. Zentzu horretan, jakin beharrekoa da munduko lehen iraultza liberala, Ingalaterrako XVII. mendeko Iraultza Gloriosa deitua, eskubide historikoen izenean egin zela: erregearen absolutismo berriaren

aurrean, iraganeko ingelesaren eskubide eta askatasun tradizionalak aldarrikatu zituzten; eta erregea garaiturik, antzinako egoerara itzuli zirela interpretatu zuten, “bueltatze” harrigarri hori adierazteko astronomiako berba bat hartuz: *revolution*, hots, astro bat orbita osoa egin ostean jatorrizko abiapuntura bueltatzen den bezala, egoera politikoa ere hasierako egoerara itzuli zela ulertuz¹⁰. Beraz *revolution* ideia jatorriz “ultrarreakzionarioa” zen, iragan urruneko egoera batera bueltatzea adierazi gura baitzuen (nahiz eta, Iraultza hartan, ingeles zuzenbide historikoa, euskal Foruak bezala, interpretatu eta moldatu egin ziren zentzu berria emanaz, ez antzinakoa). Ingelesen ikuspegi hori baztertuz, Frantziako iraultza izan zen *revolution* kontzeptuari haustura eta hoberanzko aurrerapide lineal ikuspegia eman ziona; hau da, Juaristik agertzen duen berbera, ideien eta fenomeno politikoen bilakaera konplexua aurreranzko eskema zuzen soilera murriztuz.

Fernández Sebastiánek ere, historiarekin guztiz hautsiz, maila abstrakturaino daraman federalismo indibidualista ez dakigu oso ondo non aurkitu duen. Zeren Espainiako federalista aurrerakoiek behintzat, oso indibidualistak izan arren, ez zuten inondik ere historia baztertzen: beren errepublika federaleko Kantoiak lurralde historikoak izango ziren, eta beren aukera federala justifikatzeko ere historiara jotzen zuten. Izan ere, *federazio* eta *konfederazio* berbak Erdi Arotik erabiltzen ziren Iberiar Penintsulan, baina euren jatorrizko zentzuan, hots, aliantza, edo itun bidezko batasun esanguran. Itun hori, ordea, ez zen lurraldeen artean edota lurralde eta Estatu zentral baten artean egiten, baizik lurralde bakoitzaren eta erregearen artean. Estatu federal modernoetan, aldiz, itun federala Estatu federatuen (lurraldeen) artean edota hauen eta Estatu zentralaren artean egiten da, bakoitzaren eskumenak argiro banatuz. Nolanahi ere, *federazio* hitza Espainiako erreinuen eta lurraldeen egoera tradizionalari aplikaturik agertzeak bidea irekitzen zien errepublikarrei, federazio hori zentzu modernoan emanez ulertzeko. Adibidez Kataluniako errepublikar federalek, Aragoiko Koroaren egoera federazio modernoekin homologatzen zuten. Zer esanik ez, Aragoiko federazioaren intepretazio errepublikarra erakunde historikoen jatorrizko esangura eraldatuz sortzen zen, federalismo modernoari aurrekari historiko ohoragarriak aurkitu guran¹¹. Euskal errepublikarren kasuan antzekoa gertatzen zen, baina kasu honetan, Aragoikoan baino zuzenagoa zen federalismoaz hitz egitea, zeren esan dugunez XIX. mende erdialdean egiazki ari ziren gertatzen euskal probintzietan praktika federalak.

Foruen irakurketa errepublikarraren aurreneko pausuak, aipatu bezala, *Eco Bilbaíno* egunkariaren inguruan gertatu ziren. Egunkari hori 1866an itxi zuten, iraileko iraultza saioaren alde egitearren. Eta Fernández Sebastiánen azterketa hori bukatzen da. Ondorengo urteetan eta bereziki Seiurteko Demokratikoan federalismo foruzaleak garapen handiagoa izan zuen. Horri oratuko diogu datozen orrietan.

2. Joaquin Jamar edo Forutik deribatzen den federalismoa (1868)

Joaquin Jamar (1832-1887) gipuzkoarrak 1868an *Lo que es el Fuero y lo que*

¹⁰ Ingeles Iraultzaz eta haien Konstituzio historikoaz (osotara euskal Foruen ildokoa) cf. Clavero (1997).

¹¹ Aragoiko Koroaren federalismoaz cf. Piqueras (1996: 5).

se deriva del Fuero lana argitaratu zuen¹². Bertan Foruen analisitik abiatuz errepublikanismo federala defendatzen zuen. Era horretara Gipuzkoan foruen interpretazio aurrerakoien oinarriak ezarri zituen. Jamarren ustez, XIX. mendeko eskola politiko aurreratuenek agertzen zituzten tesiak, praktikan jarrita, Foruetan azaltzen ziren: «Nuestros abuelos se adelantaron á su época, ellos realizaron ya en el siglo XIII lo que las escuelas políticas mas adelantadas proclaman como el mejor sistema de gobierno en el siglo XIX» (Jamar, 1868:15). Baina garai hartako Espainiak justu Foruen izpirituaren kontrako egoera pairatzen zuen, eta horren kausa zentralismoa zen:

(...) esa organizacion social que recibe el nombre de CENTRALIZACION es una organizacion viciosa: el ideal del buen gobierno de los pueblos está en la DESCENTRALIZACION, en el sistema que entrega el domicilio inviolable y respetado al hombre, que encomienda el gobierno á los que viven dentro del municipio, y el gobierno de los intereses de la provincia á los que viven dentro de la provincia (Jamar, 1868: 12).

Horren aurrean «El Fuero guipuzcoano es la CONSTITUCION del pueblo guipuzcoano» Jamarren esanetan (1868: 4). Beraz, garantia indibidualak eta botere autonomo zabalak eskaintzen zituen ordenamendu juridikoa. Are gehiago, Foruari zegokion antolaketa-mota federala zen:

La República federativa es, ni mas ni menos, la organización social de las Provincias Vascongadas. La política republicana federal es la que se deriva del Fuero. La política republicana federal, es la política que aconsejan al pueblo vascongado la moral y el interés. La política republicana federal, es la política vascongada (Jamar, 1868: 83-84).

Tesi hori zen liburuak zekarrena. Beraz, Jamarren obran, Forua ikuspegi federalistaz dibulgatzen zen. Baina obra honek, aurreko aipuan ikus daitekeenez, errepublikar federalengana heldu barik, euskal gizarte osoan eragin gura zuen. Izan ere, hasi berria zen iraultza demokratikoaren testuinguruan, Gipuzkoan alderdi-zatiketak ez ziren oso nabarmenak, eta liberal guztiak federalismo errepublikarrerantz erakartzeko esperantza zegoen. Beste horrenbeste egin gura zuen Jamarrek foruzale kontserbadore eta tradizionalistekin, Forua esentzialki liberal gisa agertu eta Foruen aldeko politika egoki bakarra euskaldun guztiak politika federalista aurrerakoian elkartzea zela defendatu: «en el país vascongado no cabe mas que un partido; el partido VASCONGADO, el partido DEL FUERO, el partido de la LIBERTAD» (Jamar, 1868: 65-66). Liburua euskaldunei zuzentzeaz gain, Espainia osoari ere eskaini zion. Izan ere, une hartan ireki berria zen prozesu konstituziogilea, eta foru-antolaketak espainiar probintzien artean harreman federala ezartzeko bidea erakuts zezakeen:

Y no es solo al pueblo vascongado á quien vamos á dedicar este trabajo: lo dedicamos tambien á nuestros compatriotas de Castilla. La nacion española atraviesa hoy un periodo constituyente: las leyes que regian á la nacion se han hundido con

12. Joaquin Jamar Domench (Nagore, 1832 - Donostia, 1887). Euskal idazle eta ekonomista, Gipuzkoako ordezkari politikoa izan zen zenbait aldiz. Ekonomia eta politikako zenbait liburu idatzirik utzi zituen (datuak Auñamendi Entziklopediatik hartu ditugu cf. A[sarta], 1986). Jamarren obra honen analisi labur bat jada egina dauka Urquijok (1994: 173-174). Gure ikerketan zertxobait gehiago sakondu dugu.

estrépito á impulsos de un alzamiento popular. Las malas leyes, las organizaciones viciosas, concluyen siempre así. La revolución pide nuevas leyes, el país pide una organización nueva. ¿No es llegada la ocasión de que nosotros los vascongados vengamos en ayuda de las provincias castellanas ofreciéndoles el espectáculo de esta organización provincial nuestra, que imitada en el resto del país labraria su prosperidad como á labrado la nuestra á través de los tiempos (Jamar, 1868: 5)?

Jamarrek Gipuzkoako Forua azaltzeko zazpi puntu planteatzen zituen: Estatuarekiko erlazio federala, barne-administrazioa, botereen jatorria, botereen erantzunkizuna, botereen banaketa, inkompatibilitateak eta garantia indibidualak. Puntu horietatik nabarmenenak hona ekarri ditugu.

2.1. Estatuarekiko harreman federala

Jamarren hitzetan Gaztelako erreinuarekin bat egitea Gipuzkoako herriak hautatu zuen. Gipuzkoak erabaki omen zuen nolako harremana izan nahi zuen Gaztelako erreinuarekin, zeintzuk izango ziren Gaztelaren botereak eta zein Gipuzkoaren askatasun-maila. Beraz, bi lurralde hauen artean ezarritako lotura «es un lazo puramente federativo»¹³. Gipuzkoak barne-askatasun osoa izango zuen eta Gaztela kanpo-erasoei aurre egiteaz eta “batasun nazionala” gordetzeaz, hots, armada mantentzeaz, eta zuzenbidea babesteaz arduratuko zen. Erregeak berak egoera hori errespetatzeko konpromezua zeukan, eta horretarako Foruak gorde beharko zituen. Alde horretatik begiratuz, erregea herriak hautatu zuela ulertzen zuen Jamarrek¹⁴.

2.2. Botereen jatorri herritarra

Erregea herritarrek hautatutzat hartzeak garrantzia zeukan, zeren liberal aurrerakoen ustez (errepublikarrak tartean) boterea zilegia izateko herriaren eskutik jaso behar zen. Subiranotasuna herritarrena denean, hots, boterea herriarena izatean —dela udalerriena, probintziena edo nazioarena— gobernauak honen eskutik jasotzen du eta herriaren aurrean izango da erantzule. Jamarrek (1868: 33) berriro ere, errepublikar federalek defendatzen zituzten ideiak Foruan aurkitzen zituen: «El pueblo ELIGE sus funcionarios: la voluntad del pueblo manifestada en la elección es el origen de todos los poderes». Izan ere euskal probintzietan herriak erabaki behar zuen maila bakoitzean (herriko alkatetik Diputazioko ordezkarietaraino) mandataria zein izango zen. Beraz, boterearen jatorri herritarra Foruan jasotako askatasuna da¹⁵.

Mandataria hautatzeko eskubide horrekin batera lihoake haiei kontuak eskatzeko ahalmena. Foruei esker, gipuzkoarrek konfiantza handiena zuten pertsonen emango zieten gobernatzeko ahalmena; Eta aukeratutako hori egindakoaren

13. Cf. Jamar (1868: 18). Horra Jamarrek ideia hau nola espresatzen zuen, Forua frogatzen bezala erabiliz: «(...) se trataba al unirse á Castilla, de una voluntaria entrega, de una federacion libre. Así el Fuero empieza por consignar en su título II que “no se pedirán á Guipúzcoa ni empréstito, ni sisas, ni otro tributo, ni se enviará Corregidor sin que la provincia ó su mayoría lo pida”» (Jamar, 1868: 13).

14. Foruak dio: «Seras nuestro rey en tanto que guardes el Fuero; no lo sera si no lo guardares» (Jamar, 1868: 33).

15. «Elegido del pueblo es el Alcalde. Elegido del pueblo es el Juez. Elegido del pueblo es Procurador. Elegido del pueblo es el Diputado. Hasta son elegidos los gefes de las fuerzas en los levantamientos á guerra» (Jamar, 1868: 33).

erantzule izango zatekeen herriaren aurrean¹⁶. Interpretazio horren arabera Forua demokratikoa zen, herriak horren bidez bere subiranotasuna erabiltzen zuelako:

Democracia es la forma de gobierno en que el pueblo ejerce la soberanía: es DEMOCRACIA, y el Fuero es eso mismo; el Fuero es la soberanía popular en accion y nada mas. No hay sobre la tierra una legislacion que mayor respeto guarde en este punto á los derechos del ciudadano (Jamar, 1868: 66).

2.3. Botereen banaketa

Errepublikarrak kezkatzen zituen beste puntu bat Elizak auzi zibiletan zuen esku-sartzea zen. Federalisten ustez, botere zibilak eta erlijiosoak ondo bereizirik egon behar zuten, bakoitzak eginkizun ezberdinak izaki. Eta Elizaren jarduerak espirituala izan behar zuen soilik. Bada, Jamarrentzat Foruak arazo hori ere konpondurik zeukan. Jamarren hitzetan Forua bere osotasunean errespetatzen zenean apaizek ezin zuten inondik inora bizitza publikoan parte hartu, eta probintziak ez zeukan kultura mantentzeko erantzunkizunik: herri bakoitzak bere kultura eta apaizteria askatasun osoz gestionatzeko eskubidea zuen¹⁷.

Botere espirituala eta publikoa bereizten ziren bezala, garrantzitsua zen botere zibilen baitan banaketa ondo ezartzea. Gobernu batek ezin izango zuen behar bezala funtzionatu botereak nahasturik bazeuden, pertsona edo erakunde batek botere bat baino gehiago bazuen. Beraz, pertsona batek kargu bat baino gehiago izatea galarazi beharra zegoen, eta botere bakoitzak bere lanean aritu behar zuen. Epailiek, adibidez, objektiboak, inpartzialak eta botere exekutiboarekiko inolako loturarik gabeak izan beharko zuten, hori kontrolatu eta zuzendu ahal izateko. Jamarrek, Foruaren atal ezberdinetan oinarrituta, arazo hau Gipuzkoan konponduta zegoela ondorioztatzen zuen¹⁸.

2.4. Garantia indibidualak

Jamarren iritzian (1868: 49) garantia indibidualena «es un punto que caracteriza mas que ningun otro tal vez el espíritu rudamente popular de nuestro Fuero». Izan ere, «El Fuero empieza por afirmar la personalidad de la provincia, para afirmar enérgicamente despues la personalidad del individuo». Tesi hori justifikatzeko Gipuzkoako Foruko zenbait elementu garantista nabarmentzen zituen: atxilotzeko prozedurak segitu beharra¹⁹, tortura-galarazpena²⁰, probintziaren funtzionarioak

16. Herri batek gobernariari kontuak eskatu nahi badizkio hautatu egin behar du: «el pueblo es gobernado por los hombres que mas confianza le inspiran y esa es la primera condición para que se vea bien gobernado» (Jamar, 1868: 33).

17. «la Sociedad Guipuzcoana está por Fuero desligada del culto y sus ministros. El Fuero dice al municipio: el sostenimiento del culto es materia que te incumbe. Y dice al clero: no podrás mezclarte en los asuntos temporales que son de mi incumbencia» (Jamar, 1868: 44).

18. Foruak dio: «Es incompatible el cargo de empleado de la Provincia con el de procurador á Juntas (Título 3º. cap. 28). No podrá ser procurador ninguno que tenga negocio pendiente en Juntas (Título 8º. cap. 13)» (Jamar, 1868: 48).

19. «No podrán prender los Alcaldes de Hermandad á los habitantes de esta provincia á no ser conocidos por públicos malhechores». Tít.13 cap. 15. Una legislacion que de tal modo garantiza la seguridad del individuo, aun tratándose de un juez electivo y responsable como el Alcalde de Hermandad, no puede menos de mostrarse celosa en la defensa de sus ciudadanos» (Jamar, 1868: 51).

20. «Los Alcaldes de la Hermandad no podrán dar tormento á ningun natural de esta Provincia por ser en ella todos hijos-dalgos: lo harán únicamente (para compelerles á declarar) cuando los Alcaldes

boteretsuengandik babesteko neurriak²¹, etab. Horretan guztian oinarrituz, honako ondorioa ateratzen zuen:

las decisiones de la colectividad obligatorias para todos como emanadas de la voluntad de todos; el domicilio respetado; la seguridad del individuo fuertemente garantida contra todo linaje de opresion: tal es la esencia de la doctrina foral en cuanto á los derechos del individuo se refiere, tal el conjunto de preceptos que descubren en ese viejo libro la huella del espíritu democrático mas vigoroso y mas puro (Jamar, 1868: 52-53).

Hortaz, Foruko garantia prozesalak, Jamarren irakurketan, eskubide liberalekin berdindurik agertzen zaizkigu, antzinako askatasunak askatasunik aurreratuenak bihurtuz.

2.5. Forua kode dinamikoa

Ikusi dugunez, Jamarrek Foruen irakurketa aurrerakoia egiten zuen. Baina, onartzen zuen berak deskribaturiko Foru ideala, birtutez beterik zegoen hori, eta bere garaian indarrean zegoena ez zirela gauza bera. Jamarren ustez denboraren poderioz Foruetan bi aldaketa-mota gertatu ziren: batetik aldaketa positiboak, gizartearen bilakaerak ekarritakoak; eta bestetik botere zentralak, errege-erreginek eta jauntxoek bultzatutako aldaketa interesatuak. Azkeneko horiek zirela eta, foruetan jasotako askatasun batzuk murrizturik zeuden.

Baina oro har, Jamarren aburuz “Gipuzkoako herriaren Konstituzio” honi eta Foruek babestutako giza antolakuntzari zor zitzaion euskal probintziek bizi zuten ongizate egoera. Zelangura ere, nahiz eta Konstituzio deitu, Jamarrek argi zekusan Forua zuzenbide historiko bat zela, eta mota honetako ordenamendu juridikoei zegokien bezala, garai bakoitzeko beharizanen arabera interpreta eta molda zitekeela, eta hala egin behar zela:

A diferencia de esas constituciones que una vez promulgadas á un pueblo pretenden haber dicho la última palabra en materia de derecho, el Fuero es un Código mutable, es una constitucion abierta para todos los tiempos. El Fuero prevé que el progreso de la sociedad, ha de traer mudanzas en el modo de ser de la sociedad y abre el camino para introducir en su legislacion las mudanzas que traiga el progreso de los tiempos (Jamar, 1868: 43).

3. *Pacto vasco-Navarro: Eibarko Ituna eta Laurac-Bat* egunkaria (1869-1870)

1869. urtean, alderdi errepublikarraren Espainiako zuzendaritza nazionalak, ordua arteko politikaren emaitza eskasak bere partaideen artean sortzen zuen etsipena ikusita, probintzietako erakundeei eginkizun handiagoa eman zien. Ondorioz

tengan dictamen escrito de letrado conocido de la Hermandad. Sufrirá pena de muerte y confiscacion de bienes el Alcalde que sin tal requisito diera tormento”. Tít. 13 cap.14. Hé ahí una garantía terrible contra el abuso de un Juez, en unos tiempos en que por todas partes el instrumento jurídico usual era el tormento: hé ahí el Fuero cobijando bajo sus alas al procesado hasta en el calabozo» (Jamar, 1868: 52).

21. «Si algun Alcalde ó empleado de la Hermandad fuera muerto ó herido por consejo de HOME PODEROSO, que la hermandad haga causa propia la vindicacion”. Tít. 4.º cap. 11. He ahí un freno á las demasías de los grandes» (Jamar, 1868: 51).

federalismo paktistaren teoria praktikara eramaten hasi ziren. Lurraldean geografia eta historia komuna kontuan hartuta, alderdi errepublikarraren probintzietako taldeak lurraldeen arteko itunak sinatzen hasi ziren.

Lehenengo ituna, Tortosakoa, maiatzaren 18an sinatu zen, antzinako Aragoiko Koroako lurraldeak batuz (Katalunia, Aragoi, Valentzia, Balearrak). Ondoren sinatu ziren beste itunentzako eredia izan zen hori. Kordobakoa ekainaren 12an egin zen Andaluzia, Extremadura eta Murtziaren artean; ekainaren 15ean Gaztela Zaharra, Leon, Gaztela Berria eta Albacete biltzen zituen Valladolideko ituna sinatu zen; galiziar probintzien eta Asturiasen artekoa Coruñan ekainaren 18an egin zen; Eibarkoa, ekainaren 23an, Arabak, Gipuzkoak, Bizkaiak eta Nafarroak sinatu zuten. Honen guztiaren ondorioz, Pi i Margall-en strategiaren arabera, Itun Nazional bat sinatu zen eta tokian tokiko itunen ordezkariak osatutako asanblada zentrala sortu zuten. Itun horiek, halaber, Estatu federal bat behetik gora sortzeko modua erakusteko saiakera izan ziren²². Ikus dezagun zehaztasun handiagoz Eibarko ituna eta horren haritik sorturiko *Laurac-Bat* egunkaria.

3.1. Eibarko itun federala (1869)

Eibarko itunak Bilbo, Tolosa, Irun, Gasteiz, Iruñea, Eibar eta Tuterako 28 ordezkari bildu zituen. Ekitaldian Pi i Margall bera egon zen²³. Ohargarria da itunean Hegoaldeko lau euskal herrialdeak biltzea, ordura arte nagusi izandako “hirurak bat” proiektua barik, “laurak bat” hobetsiz. Eta ohargarria dela diogu, zeren “laurak bat” proiektua urte gutxi lehenago hasi zen hedatzen, eta gainera neokatoliko tradizionalisten eskutik²⁴. Itun federal hauek lurralde handien artean egin zirenez (pentsa Kataluniak adibidez Aragoi, Balearrekin eta Valentziarekin elkartu beharra izan zuela), hiru probintzia soilik elkartuko zituen ituna egitea beharbada gutxiegi iruditu zitzairen, eta horregatik egin zen lauren artean, azken finean Nafarroa inorekin joatekotan beste hiru euskal herrialdeekin zihoan ongien.

22. Espainiako errepublikarren itun hauei buruz ikus Townson (1994: 100-101) eta Hennessy (1966: 115-118).

23. Sinatzaileak honakoak izan ziren, Arabatik: P. Martínez de la Hidalga, R. Becerro de Bengoa, D. R. Arrese, J. B. de la Cuesta, A. Sagarminaga, H. Martínez, J. Moca, C. Letamendi; Bizkaitik: C. Etxebarrieta, H. Oleaga, A. Gojeaskoa, J. F. Mayor, J. M. Ibazeta eta J. Arzadun; Gipuzkoatik: J. M. Zabala, B. Irajuste, F. Aristegi, U. Agirre, M. Ezkurdia, C. Etxebarria, J. C. Etxebarria, O. Ortiz de Zarate; Nafarroatik: L. M. Lasala, I. Astarain, A. Velasco, J. Llorente, F. Utray, B. Navascues, J. Garai, P. Iraizo. (cf. Urquijo, 1994: 347). Ohargarria da sinatzaileen artean Jamar bera ez egotea, nahiz dudarik gabe agiri harekin bat egingo zuen. Fernández-Sabastiánek dioenez (1988: 23) itun honen sinatzaileak ez ziren guztiak errepublikarrak, tartean bestelako liberal aurrerakoiak ere bildu baitziren. Sinatu zuten agiria irakurritz behintzat ez du halakorik ematen, bertan aldarrikapen argiro errepublikarrak egiten dira eta. Itunaren testu osoa Mikel Urquijoren lanean eranskin gisa aurki daiteke (1994: 346-347).

24. “Hirurak bat” leloa XVIII. mendeko Euskalerrriaren Adiskideen Elkartetik zetorren, eta XIX. mendearen lehen erdialdean nagusi izan zen, bai tradizionalisten eta bai liberalen artean. “Laurak bat” leloa lehen gerra karlistaren haritik agertu zela ematen du. Aurrenekoz 1846ko testu karlista batean dokumentatzen da, baina ez zen 1866 ingurura arte hedatzen hasi (cf. Zabaltza, 1991: 118-119, 130, 53. oharra). “Laurak bat” proiektua arabar eta nafar neokatolikoek 1865-1868 artean nola sustatu zuten azaltzen du Nieva-k (1999: 26-45). Honekin ez dugu esan gura “laurak bat” proiektua berez tradizionalista zenik (nahiz egia esan, haren bultzatzaileek euskal identitate komunean baino gehiago interes katolikoetan funtsatu elkartasuna), baizik nabarmendu gura duguna, hain denbora laburrean aurrerakoiek ere bere egitea da.

Eibarko Itunean Pi i Margall-en helburu orokorrarekin bat egin eta antzeko beste itunei elkartasuna agertu zitzaien²⁵. Barne-antolaketari zegokionez, itun honekin Arabak, Gipuzkoak, Bizkaiak eta Nafarroak kontseilu federal bat sortzea erabaki zuten. Kontseilu horrek osatuko zuen Hego Euskal Herriko alderdi errepublikararen zuzendaritza biltzarra, eta, data finkorik izan gabe, federazioaren interesek eskatzen zuten bakoitzean bilduko zen. Euskal federazioko herrialde bakoitzak nahi bezala antolatzeko eskubidea zuen, eta euskal kontseilu federalera bidaltzeko ordezkari bat aukeratu beharra zeukan. Kontseilu hori urtez urte hautatua izango zen. Ez dakigu noraino gauzatu zen asmo hori.

Itunean errepublikar alderdiaren oinarrizko bi ideiak agertzen zaizkigu: askatasunen aldarrikapena eta monarkien aurkako jarrera. Askatasunen aldarrikapena antolaketa federalaren aldarrikapena zen. Zeren errepublikarrentzat antolaketa federala zen askatasuna segurtatzen zuen erregimen bakarra. Horrekin guztiz kontrajarrita monarkia seinatzen zuten, askatasunen eta demokraziaren aurkako gobernu-sistema. Euskal errepublikar federalek instituzio horri buruz zuten iritzia itunaren hainbat pasartetan azaltzen zuten. Agiri hau sinatzeko arrazoiak azal-tzerakoan, adibidez, monarkiak ekarritako ondorio ezezkorrak agertzen zituzten²⁶.

Dena den, monarkiaren aurkako beligerantzia horrek errepublikarren demokratioarekin tupust egin zezakeen, zeren urte horretan egin berri zen Konstituzio aurrerakoiak monarkia ezarri zuen. Baina errepublikarrek oposizio-lana burutzeko nahia erakutsi arren, bide baketsuetatik garatzeko asmoa azaldu zuten:

(...) puesto que la forma monárquica de la constitución promulgada es hija de una asamblea nacida del sufragio, el partido republicano cree que no debe salir de una propaganda pacífica y legal ínterin no se vede injusta y violentamente el ejercicio de los derechos individuales consignados en el código fundamental.

Eibarreko itunean euskal errepublikar federalek Foruekiko zuten jarrera ere ikus dezakegu. Itunaren arabera, Hego Euskal Herrian, Foruei esker, askatasun guztiak babestuta egon ziren, eta zentralismoak, errege-erreginek eta absolutismoak jarri zuten arriskuan erregimen demokratiko hori. Jamarrek egiten zuen bezala, Foruen sistema errepublikar federal eta konstituzionaltzat hartzen zen eta Foruak salbu mantentzeko Espainia errepublika federal bihurtu beharko zen. Bestalde, aipatzekoa da itunaren sinatzaileen artean federalismo foruzalearen aitzindari bat, Cosme Etxebarrieta aurkitzea, *Eco Bilbaíno* egunkariko erredaktore izandakoa. Ikus dezagun itunean Foruez hitz egiten duen pasartea:

Gozando las provincias vascas de un régimen democrático republicano, cuyas inmensas ventajas acreditan su grado de prosperidad y una larga experiencia de

25. «La Asamblea Vasco-Navarra felicita ardientemente a las provincias iniciadoras del pacto federal de Tortosa y a las federaciones de Córdoba y Castilla, y les ofrece su cooperación, impetrando la suya bajo el lema de la fraternidad ibérica en la república federal».

26. Testuak zera dio: «La experiencia de lo que son los pueblos, cuando quebrantando el tesoro de la libertad más amplia dentro de las esfera de la libertad agena y la práctica de los derechos individuales sin otra restricción que el juicio de la recta conciencia; el lastimoso estado a que ha venido España cuando a la soberanía del pueblo ha sustituido a la soberbia de los monarcas; la ruina que amenaza siempre que a la austeridad y modestia de la democracia se antepone el fausto y prodigalidades de las Cortes son los únicos móviles que nos impulsan a agitarnos en pro de una idea que juzgamos la única capaz de salvar nuestra apreciada autonomía y la independencia de la patria».

muchos siglos, la federación constituida de Navarra, Vizcaya, Guipúzcoa y Alava aspira en primer término a conservar y defender las instituciones a cuya sombra han vivido, y a restaurar las libertades de que han sido privadas, durante la larga dominación monárquica; defendiendo su código foral de nuevas mutilaciones hasta alcanzar su completa autonomía provincial, conservando al mismo tiempo el más estrecho y perpetuo vínculo de unidad con la madre patria en el lazo federal republicano. (...) su actual régimen [foral] está completamente garantizado, constituida España en república federal y peligrará siempre bajo monarquías, máxime si se tiene en cuenta la tendencia de los varios aspirantes al solio que envolverán en una guerra fratricida a nuestro hermoso país, guerra en que se jugaría al azar de éxito nuestras venerandas leyes.

3.2. *Laurac-Bat* egunkaria (1869-1870)

Esan dugun bezala *Laurac-Bat* Eibarko Itunaren ondorioz argitaratzen hasitako egunkaria izan zen. Aurkezpen-alea 1869ko abuztuaren 30ean agertu zen Bilbon. Irailetik aurrera astean hiru egunez irteten hasteko xedea zuen, handik hilabete batzuetara eguneroko bihurtzeko asmoz. Ez dakigu zehazki noiz arte iraun zuen, baina Mikel Urquijok dioenez (1994: 169), badirudi 1870eraino segitu zuela, Saboiako Amadeoren etorreraz itxi zen arte. Egunkari honen azterketa osoa egiteke dago. Guk, sarrera moduan, eskuratu ahal izan dugun aurreneko alea ikertu dugu. Bertan egunkariaren lerro ideologikoa laburbiltzen da²⁷. Hitz hauekin aurkeztu zuen bere burua errepublikar egunkariak:

Siendo el Periódico, uno de los mayores estimulantes de la opinión pública, en el que pone en acción el marasmo de las masas, suscitando las cuestiones más vitales, (...) siendo el Periódico el despertador del espíritu, nos hemos propuesto publicar EL LAURAC-BAT, destinado especialmente á ser órgano del Pacto federal vasco-navarro.

Eibarko Itunarekin zuen lotura, egunkarian lan egiten zuten pertsonen izenek baieztatzen digute. Asko Ituna sinatu zutenak dira: Julian Arzadun bizkaitarra, egunkariko idazkari kargua zuena; Cosme Etxebarrieta, idazkaritzako sekretarioa; Pedro Martínez de la Hidalga, Ricardo Becerro de Bengoa eta Daniel Ramon Arrese, Arabako kolaboratzaileak; Justo Maria Zabala eta Vicente Agirre, Gipuzkoa-koak; Luis Maria Lasala eta Baldomero Navascues, Nafarroakoak. Estatuko kolaboratzaile garrantzitsuak ere baziren: Jose Maria Orense, Pi i Margall, Emilio Castelar, Estanislao Figueras, etab. Ikus daiteke erredakzioko kideak bizkaitarrak zirela, egunkaria Bilbon irteten baitzen. Baina hala ere euskal itunaren organo zenez beste probintzietako kolaboratzaileak ere bazituen, Hego Euskal Herri osoari zuzendutako berriak landuz:

El LAURAC-BAT, como órgano del Pacto vasco-navarro, mirará con especial atención los intereses y cuestiones relativas á las cuatro provincias confederadas. En sus columnas se suscitarán y ventilarán todos aquellos proyectos que puedan servir para mejorar y regenerar al pueblo vasco-navarro.

Laurac-Bat-ek aurrerapenaren aldekotzat definitzen zuen bere burua, eta errepublika federala aurrerapen horren ondorio zuzen gisa zekusan. Hor, osterera ere,

27. LAURAC-BAT. *Organo del Pacto Vasco-Navarro*. "Prospecto". Bilbo, 1869.08.30 (aldizkari ale hau Eusko Legebiltzarreko bibliotekan aurkitu dugu).

demokraziarekin bateragarria den gobernu-mota bakarra errepublikarra dela esaten zaigu. Errepublikak izango litzateke askatasun guztiak, indibidualak zein udalerrienak, probintzienak eta nazioarenak osotasunean garatzeko balioko lukeen sistema. Eta, edozein sistema zentralista eta unitario horien aurkakoa litzateke²⁸.

Ekonomikoki librekanbioaren alde agertzen zen, baina onartzen zuen momentuko testuinguruan ondorio ezezkorrak izango zituela eta protekzionismoa mantendu beharra zegoela. Dena den, ez zuen edozelako protekzionismoa nahi:

(...) no podemos por menos de ser proteccionistas. Más no queremos un proteccionismo, que redunde en beneficio de tres ó cuatro capitalistas, monopolizadores de la riqueza: queremos un proteccionismo que redunde en beneficio de la clase obrera

Luze azaltzen zuten erlijioarekiko beren jarrera. Hasteko, bakoitzak nahi zuen erlijioa hautatzeko askatasuna behar zen. Bigarrenik, Elizak eta Estatuak, bi erakunde ezberdin izanik, ondo bereizirik egon beharko zuten. Elizak ez zuen Estatuaren eginkizunetan eta bizitza zibilean sartu behar. Era berean, Estatuak ez zuen Elizaren kontuetan parte hartu behar. Ondorioz kultua diru publikoarekin eusteari utzi beharra zegoen.

Foruez ere baziharduen *Laurac-Bat*-ek. Foruetan errepublikanismoaren hazia antzematen zen. Erredaktoreek beren burua foruzale gisa aurkezten zuten, baina ez zituzten Foruak une hartan zeuden bezala nahi. Foruen funts errepublikarra pizteko aldaketa batzuk egin beharra zegoela zeritzen:

En nuestros Fueros, usos y costumbres, existen grandes gérmenes de República y federalismo, espontáneas producciones de la primitiva sociedad euskara (...) Nosotros, somos, pues, fueristas; pero nos distinguimos de los fueristas históricos, en que estos lo son, precisamente por los elementos de feudalismo é intolerancia que en si encierran: al paso que nosotros lo somos por sus gérmenes de republicanismo: los históricos piden su inalterable consevacion y nosotros pedimos su depuracion.

Ikusten dugunez Eibarko Ituna eta *Laurac-Bat* egunkaria, orokorrean, Jamarrek aztertutako ideien ildotik zihoazen.

Lan honen xedea euskal mugimendu errepublikarraren jardueran sakontzea barik, federalista foruzaleen ideologia ikertzea da. Baina gure hurrengo mugarri ideologikoari heldu aurretik, errepublikar mugimenduaz ohartxo batzuk erantsiko ditugu. Seiurteko Demokratiko osoan euskal federalismoa nahiko ahula eta zabalpen sozial urrikoa izan zen. Mikel Urquijoren ikerketari segituz (1994: 167-171), euskal hirietan taldetxo errepublikarrak antolatu zirela esan dezakegu (Bilbon, Donostian, Bergaran, Tolosan, Iruñean eta abarretan). Eta 1870ean, 1872an zein 1873an Espainiako biltzar errepublikarretara euskal ordezkariak bidali zituzten (maiz Eibarko Itunaren sinatzaileak). Baina ez zuten jarduera publiko

28. *Laurac-Bat*-ek zera dio bere aurkezpeneko alean: «Proclamamos la República, por considerarla como la única forma de Gobierno, compatible con la democracia, como la encarnacion de los derechos individuales: y proclamamos el Federalismo como la derivacion más lógica del principio de libertad. (...) El sistema centralizador y unitario nos parece propio de los gobiernos autoritarios, despóticos: así como el descentralizador, el federal, nos parece el mas propio de la libertad y de la razon».

nabarmenegirik izan. Soilik 1872 urtearen amaieran, Espainiako errepublikar intransigenteak Espainiako gobernuaren kontra matxinatzean, Bizkaian ere gertatu zen mugimendu aipagarririk: Cosme Etxebarrietaren aginduetara 300 bat gizon altxatu ziren Gorbeia aldera joz. Gobernu zentralaren aurkako saio hartan, bizkaitar errepublikar matxinoak karlistekin aliatzeko prest agertu ziren, haiekiko diferentzia nagusia erlijiosoa zela adierazi, eta tradizionalistei Eliza albo batera uzteko eskatuz. Altxamendu hori laster menperatu zuten Estatuko indarrek. 1873an Espainian errepublika aldarrikatu zen. Hego Euskal Herrian Madrillgo Gorteetarako aukeraturiko hamalau diputatuetatik, zazpi behintzat errepublikar federalak izan ziren²⁹. Bazirudien beren uea heldu zela. Baina errepublika desegonkortasun-egoera larrian sortu zen. Testuinguru horretan azaldu zen gure hurrengo mugarría, Julian Arresearen liburua.

4. Julian Arrese edo Forua espainiar probintzia guztiei aplikaturik (1873)

Seiurteko Demokratikoaren bukaera partean, Julian Arresek (1829-1876), Ja-marren “vulgarizar el fuero” xedea gogora ekarriz, ildo bereko lan bat argitaratu zuen³⁰. Tituluak aski ongi zehazten zituen liburuaren asmoak: *Descentralización universal ó el fuero vascongado aplicado á todas las provincias*. Estatuak eta bereziki Espainiak jasaten zuen zentralizazioaren aurka idatzitako liburua zen, probintzien eta udalen autonomia defendatuz eta euskal herrialdeen autogobernu forala horren eredutzat agertuz. Julian Arrese nahiz Madrilen bizi, Gasteizen jaioa zen. Hain zuzen Daniel Ramon Arrese, Eibarko itun federala sinatu zuten arabar ordezkarietako bat, anaia zuen. Julian Arresek Arabako erakunde eta legislazio foralak aztertzen zituen bere liburuan. Hala ere, Arabako antolaketari, Gipuzkoakoaren eta Bizkaikoaren berdina zeritzon funtsean. Hala bada, arabar kasua aztertuz oro har euskal Foruak agertu nahi zituen.

Euskal Foruak udalen eta probintzien autonomiaren adibide ziren Arreserentzat. Bestalde, Antzinako Erregimenari loturiko ikuspegietatik erabat aldenduta zekuskien Foruak: «el feudalismo y las instituciones vascongadas responden á dos aspiraciones esencialmente antitéticas» (Arrese, 1873: 98). Eta dudarik egin gabe haien irakurketa demokratikoa egiten zuen: «El sistema foral es el gobierno del

29. 1873ko maiatzeko hauteskunde haietan honako diputatuak aukeratu ziren: Arabatik: P. Martínez de la Hidalga federalista eta R. Xerika liberala; Bizkaitik: C. Etxebarrieta federalista, B. Larrinaga politikoki zehaztugabea, eta N. Torre-Mendieta federalista; Gipuzkoatik: G. Aristizabal zehaztugabea, I. Ibarzabal liberala, C. Bea-Murgia zorrillista, eta J. M. Zabala federalista; Nafarroatik: J. M. Erkazti liberala, F. Huder federalista, S. Jimenez zehaztugabea, S. Landa federalista, eta S. Olabe federalista (datuen iturria: Agirreazkuenaga *et al.*, 1993). Ikus dezakegunez Eibarko Ituneko sinatzaile batzuk eta *Laurac-Bat* aldizkariko kolaboratzaileak aurki ditzakegu tartean. 1873ko bozketa haiek berme demokratiko askirik gabe egin ziren, Hego Euskal Herri gehiena karlisten kontrolpean zegoen une batean, eta oso botoemaile gutxik parte hartuz bozketan (adibidez, J. M. Zabala, Tolosako barrutitik aurkeztu zen, eta soilik 614 botoekin hautatu zuten, bigarren hautagaiak 425 bozka zituen bitartean. cf. Agirreazkuenaga *et al.*, 1993: 956).

30. Arreseri buruzko datu urriak Auñamendi Entziklopediatik (AA, 1986) eta Herran-en lanetik (1879) hartu ditugu. Jose María Ortiz de Orruño irakasleak, duela urte pare bat, Arreseren liburu honen berrargitarapena egiteko asmoa zuela jakinarazi zigun (EHUren *Textos clásicos del pensamiento político en el País Vasco* bilduman). Baina saiatu arren ez dugu berrargitarapen hori egin denik baieztatzerik izan. Egin dadinean Ortiz de Orruñok Arreseren eta bere obraren inguruko datu berriak eskainiko dizkigu, apika.

pueblo por el pueblo en su más lata acepcion» (Arrese, 1873: 109). Hortaz, erregimen foralak sistema dezentralizatu eta aurrerakoia eskainiz, Espainia osora aplikatzeko eredu ematen zuen. Gainera nibelazioa hola lorturik Foruen mantenua ere segurtatuko zatekeen «porque el interés de las tres provincias, que hoy reviste carácter local, se convertiría (...) en interés nacional» (Arrese, 1873: 10). Hortaz, Arreseren lanak, Arabako erregimena azalduz, Espainiarako dezentralizazio-eredu bat erakutsi eta Foruen apologia egiteko xede bikoitza zuen.

Arreseren liburuan, Arabako antolaketa galdera-erantzun sistemaren bidez azaltzen zen. Euskal foru-erregimenaren arlo desberdinak Suitza eta AEBetako Konstituzioekin parekatzen ziren, inoiz baita 1812ko Cadizko Konstituzioarekin ere³¹. Horien aurrean Estatu zentralizatuaren antolakuntza negatiboki kontrajartzen zuen, batzuetan 1869ko espainiar Konstituzio (unitario)-aren artikulua zehaztuz. Liburuan zehar deszentralizazioaren ideia indartzeko hainbat autoreren iritziak jasotzen zituen, berdin Proudhon anarkistarenak, Tocqueville liberalarenak zein Ramon Ortiz de Zarate arabar tradizionalistarenak. Erkaketa sistematikorik egin ez badugu ere, pentsa daiteke azken autore horrek Arabako Foruen inguruan egindako lana (cf. Ortiz de Zarate, 1858) Arresek iturri gisa baliatu zuela. Arresek liburuari emandako banaketa Arabako antolaketaren deskribapenari loturik dago. Bere kapituluak jarraitu barik, zenbait puntu atera dizkiogu, hein batez Jamarren atalen paraleloan antolatuz:

4.1. Tokiko autonomia

Tokiko autonomia udaletatik hasi eta probintziaraino zabaltzen zen. Araba kontzeju, udal, ermandade eta koadriletan banaturik zegoela azaldu ostean, tokiko autonomia horiez zuen iritzia zekarren:

Cada municipio es un pequeño Estado dentro de la provincia. La nación no debe intervenir en la gestión de intereses locales. (...) El municipio tiene derecho á vivir sin tutores, pudiendo arruinarse ó enriquecerse como los ciudadanos mayores de edad. La independencia del Municipio, que en el fondo significa la independencia de las familias reunidas, es la piedra angular de las instituciones democráticas; es el cimiento de las libertades públicas; es el arca santa de las libertades populares (Arrese, 1873: 33-34, 38).

Hola Araban, udalak berak hautatutako karguak eta bere kontrolpean zeuzkan bitartean, gainerako probintzietan gobernu zentralak gobernadore zibilen bidez ezartzen zituela salatzen zuen.

Probintziaren autonomiari dagokionez, Araban «la provincia se organiza de abajo arriba, por medio de círculos concéntricos, independientes y autónomos, convenientemente entrelazados», kontzejutik hasi eta Batzar Nagusietaraino

31. Suitza eta AEBak, beren antolaketagatik eredu ziren Espainiako federalistentzat. Bilboko *Eco Bilbaíno* errepublikar egunkariak ere argitaratu izan zituen suitzar Kantoiaren konstituzioak (cf. Fernández Sebastián, 1988: 20). Cadizko Konstituzioa ez zen federala, baina ezta zentralista ere, baizik erdibidekoa (probintzialista deitu izan zaio). Gogoratu 1. 1. atalean ikusi dugun J. M. Orenseren testuan nola aipatu zaigun Cadizko Konstituzioak probintzien antolaketarako euskal Diputazioen ideia hartu zuela. Izan ere 1812ko Konstituzioak probintziei hein bateko autogobernua ahalbidetzen zien, eta Clavero moduko zuzenbide ikertzaile batzuen arabera, sustratu federal bat ere izan bazuen (1988: 64-68). Beraz, Arrese ez zebilen oso oker Cadizko Konstituzioa aipatzean.

heltzeko (Arrese, 1873: 46). Hola probintzia, udala bezala, autonomia zen. Arreserentzat euskal probintzietan ez zegoen gobernadore zibilik³². Aitzitik, Diputazioa probintziak aukeratua zen, probintziaren erantzunkizun eta zaintzapean. Autonomia horri esker Arabako beharrizanak zuzenago eta eraginkorrago gestionatzen ziren, eskumen zabalak izaki: osasuna, hezkuntza publikoa, mendien eta larreen gestioa, industria, merkataritzaren eta nekazaritzaren garapena, ordena publikoa, eliz harremanak, etab. (Arrese, 1873: 55-56). Aipagarria da zor publikoaren amortizazioa, Estatu zentralizatueta etengabe hazten zena, euskal herrialdeetan mugaturik egotea. Arreserentzat euskal autonomia maila hain zen osoa non Batzar Nagusiak subiranoak zirela esatera heltzen zen. Zentzu horretan euskal probintzien subiranotasuna AEBetako Estatu federatuekin eta Suitzako Kantoiekin parekatzen zuen (Arrese, 1873: 62-63). Probintzia foralaren autonomiaren aldean, Estatu zentralistetan:

El Estado es todo: la provincia nada. El ministerio de Gobernacion pesa, como yugo despótico, sobre el gobernador civil: el gobernador sobre los alcaldes, los alcaldes sobre los pueblos, ahogando la vida provincial y municipal (Arrese, 1873: 63-64).

Konponbide gisa, honela imajinatzen zuen euskal probintziek zuten erako autonomia Espainiara hedatzea:

Decretada la autonomía provincial, se suprimirian los gobiernos civiles, (...) tampoco se necesitarian oficinas de Hacienda, (...) porque las Diputaciones entregarian sus cuotas directamente al Gobierno, adoptando el sistema seguido por la provincia de Navarra, (...) muchos servicios públicos que hoy se hallan á cargo del Estado se trasladarian á los individuos, municipios y provincias (Arrese, 1873: 112-113).

Aipagarria da Arabako azken erakunde bezala —kontzeju, udal, ermandade, koadrilla eta Batzar Nagusien ostean— hiru euskal probintziak biltzen zituen “konferentzia” azaltzea: «para la defensa de las instituciones vascongadas, contra órdenes y disposiciones antiforales que afecten a las tres provincias» (Arrese, 1873: 83). Izatez, Arabak, Bizkaiak eta Gipuzkoak “euskal konfederazioa” osatzen zutela zioen, Suitzian bertako Kantoiek osatzen zutenarekin parekatuz (Arrese, 1873: 269).

4.2. Demokrazia (tradizionala)

Lehen ere aipatu dugunez, Arresek foru-erregimenak demokraziarekin identifikatzen zituen. Baina ideia horrek puntu ahulak zituen, bereziki bozketei zegokienean. Izan ere, Foruari horren demokratikoa iritzi arren, agerikoa zen euskal

32. Euskal probintzietan, 1839tik egon bazegoen gobernadore zibila, nahiz Bizkaiaren eta Gipuzkoaren “korrejidore” izen tradizionala eman, Antzinako Erregimenean erregearen ordezkariak zuena alegia. Araban, tradizionalki erregeak ez zuen ordezkari zuzenik ezartzen. Lan hori Arabako diputatu nagusiak hartzen zuen. 1839-1876 artean, Euskal Diputazioek maiz egin zuten topo gobernadore zibilen boterearekin, eta Madrilen ordezkari horien eragina mugatzen eta neutralizatzen saiatu ziren. Horrela, askotan gobernadorea beraien adostasunarekin izendatzea lortu zuten. Araban adibidez, sei urtez bertako diputatu nagusia izandako bat hautatu zuten ondoren gobernadore zibila izateko (cf. Portillo eta Ortiz de Orruño, 1990: 116-117). Hortaz gobernadore zibilek ez zuten euskal probintzietan Espainiako probintzia arruntetan adinako botererik, baina izan baziren.

zuzenbide tradizionalen ez zegoela sufragio unibertsalik. Hauteskunde zuzenak abusu- eta gatazka-iturri zirela esanez saihesten zuen arazoa Arresek:

El nombramiento de primeros magistrados no debe hacerse por plebiscito, porque ganarian la eleccion, despues de inmundia lucha, los hombres más ambiciosos, los más influyentes, los más corruptores, los más indignos del poder: la eleccion por el pueblo en masa, conmovieria extraordinariamente el país, produciendo quizá la guerra civil (Arrese, 1873: 159).

Hortaz, Araban erabiltzen ziren hautaketa-sistemak, nahiz biztanleria osoak ez bozkatu, demokratikotzat zituen. AEBetan ere presidentea elektore-kopuru mugatu batek hautatzen zuela esanez frogatuta zegoela uste zuen. Bestalde, Arabako herrietan zeuden hautaketa-modu desberdinak ez zitzaizkion kontraesankorrak iruditzen: «Este asunto interesa solo á las localidades respectivas, no afectando, en bien ni en mal, al Estado ni á las provincias» (Arrese, 1873: 135).

Edozein kasutan, herriak gobernuan zuzenki ere parte hartzen zuela erakutsi nahi zuen: auzi larri eta funtsezkoak ebatzi behar zirenean «la legislatura consulta al país», horretarako ermandadeek beren baitako udal eta kontzejuetan herritarrei galdetzeko ardura hartuz. Ohi bezala, Suitzarekin edo AEBekin alderatzen zuen hori, horren ostean Estatu zentralizatuen kontrapuntua emateko. Azken horietan «Las Córtes obran soberanamente por sí mismas, sin consultar al país, ni someter á su aprobacion reformas trascendentales» (Arrese, 1873: 101-104).

4.3. Botereen banaketa

Arabian zeuden erakunde desberdinak azaltzean, botere-banaketa liberalaren arabera antolatutik egon balira bezala agertzen zituen. Horren arabera, *junta general* edo Batzar Nagusia botere legegilea zen, eta maiz *congreso alavés* izena ematen zion. Diputazio Nagusia botere exekutiboa zen Arreseren azalpenetan. Eta *junta particular* izenekoa, auzi larrietarako botere exekutibo ezohikoa (Arrese, 1873: 47-48).

Arresek zioenez Arabako Diputazioaren edo botere exekutiboaren abusuak ekiditeko, Foruak mugapen batzuk ezartzen zituen, Suitzan, AEBetan eta Cadizko konstituzioan gertatzen zen bezala. Bereziki Diputazioak ezin zuen Batzar Nagusien bilera galarazi, ezta batzarra suspenditu edota disolbatu ere. Hortaz, Araban nagusigoa botere legegileak zuela zioen, Estatu zentralistetan exekutiboak hura itota zeukan bitartean.

Botere zibilen eta erlijiosoen independentzia ere jasotzen zuen Foruak. Arreseren aburuz autonomia lokaletik deribatzen zen ondorio garrantzitsuenetako bat Elizaren askatasuna zen. Espainian gobernu zentralak Elizari zegokion dirua bere eskuetan nahi bezala zerabilen bitartean, euskal apaizteriak «goza de independencia real y efectiva con respecto del Gobierno, de quien nada percibe, entendiéndose directamente con los pueblos para cobrar sus rentas». Euskal eredia, bada, Espainia osora zabaldu beharko zatekeen (Arrese, 1873: 31-32). Eliza botere zibilaren menpe ez zegoen bezala, hau ere harengandik aske zegoen: Araban kargu publiko izateko baldintzetako bat elizgizon ez izatea zen. Beraz, botere espiritual eta tenporalen banaketa jasotzen zuten Foruek (Arrese, 1873: 132).

4.4. Karguen kontrola eta pertsonen eskubideak

Arresek foru-erregimenari demokratikoa bazeritzon eta are Estatu zentralistetan zegoena baino demokrazia aurreratua goa, bertan kargu publikoei ezarritako kontrolengatik zen hein handi batez. Hala, Araban hautagai gisa aurkezteko aurrealdintza batzuk bete beharra zegoen: arabarra izatea, ondasun-kopuru jakin bat edukitzea eta hogeita bost urte baino gehiago izatea. Ezaugarri horiei esker, tokian tokiko interesak ezagutzea eta defendatzea garantizatzen zen Arreseren ustez (1873: 120-122), baita hautagaiaren independentzia eta inoren menpeko ez izatea ere.

Arabako karguek, halaber, honako ezaugarriak zituzten: kargu “inpretendibleak” ziren, hautatuak, derrigorrezkoak, zinpekoak, ordainduak, epe jakinetarakoak, iraupen laburrekoak, berriro aukeratu ezinak, erantzunkizundunak eta kengarriak. Berezitasun horiek Arreseren iritziz (1873: 192-251) arabar karguen kontrola herrialde demokratiko aurreratuenetan ezartzen zenaren pareko bihurtzen zuten, Estatu zentralizatuetao sistemek ustelkeria eta boterea lortzeko borroka bultzatzen zituzten bitartean.

Arabako karguei ez zitzairen gainerako biztanleekiko bereizketarik egiten:

(...) prohibido está por fuero el señorío y vasallaje: prohibido está igualmente exigir en juntas generales el uso de títulos, que aun indicando simples honores, pueden introducir la más pequeña desigualdad ó la más lijera idea de supremacía (Arrese, 1873: 97).

Hortik pertsonen eskubide bat agerian utzi nahi zuen Arresek: berdintasuna. Gainerako eskubide liberalei ez zien arreta berezirik eskaintzen, baina, aldiz, Foruak eskaintzen zuen berdintasuna argi azpimarratzen zuen. Eta Suitza edo AEBetan antzeko lege berdintasunzaleak aurkitzen bazituen, Estatu zentralistetan «los ciudadanos se convierten en súbditos: los súbditos se dividen en nobles y plebeyos». Horren agerretako bat kargudunei titulu eta ohoreak ematea izaki (Arrese, 1873: 98).

4.5. Foruen erreformagarritasuna

Ikusitakotik, Arreseren analisisa Jamarrenaren antzekoa dela ondorioztatzen da. Baina Arrese Jamar baino baldintzagabeagoa zen Foruen akatamentuan, eta ez zuen elementu kritikagarri bat ere seinalatzen. Ikuspegi aurrerakoitik, Arreseren planteamenduak zeukan mugapen nagusia foralitatea bere hartan inolako aldaketa gabe onartze horretan zegoen. Zeren herriaren gobernu goraipatu arren, foru-antolakuntza herritarren borondatek harago ikusten zuen (Fernández Sebastiánek seinalatu digun ildoan):

¿Puede anular el país en virtud de su autonomía, los principios que constituyen el sistema foral? (...) Vuestras preguntas se contestan con preguntas análogas. ¿Puede el hombre, en virtud de su soberanía, destruir las leyes de la naturaleza? ¿Puede conspirar contra sí mismo? ¿Puede decretar su propio suicidio? No puede hacerlo (Arrese, 1873: 270).

Dena dela, neurri batean, euskal probintzien erregimenari eboluzionatzeko gaitasuna ezagutzen zion, zeren eta «en lo humano todo es perfectible». Alde ho-

rretatik, Jamarrek bezala, foruaren ikuspegi dinamikoa agertzen zuen. Nahiz eta gero, praktikan, Arresek gauza guztietan men egiten zion Foruari, teorian onargarria izan zitekeen aldaketa horiek proposatzeko aukera baliatu gabe. Horren arrazoia, agian, zuhurtzia zen. Izan ere, Arresek ez zuen liburuan bere burua esplizituki errepublikar federal gisa agertzen. Eta deszentralizazioa edozein erregimenekin bateragarria izan zitekeela zioen “desde la monarquía divina hasta la república mas democrática” (Arrese, 1873: 9). Nolanahi ere, liburuan Foruaz egiten zuen interpretazioak eta bere anaia federalista izateak duda gutxi uzten du bere filiazioaz.

5. Ondorioak

Euskal herrialdeek, Espainia baitan nolabaiteko Estatu federatuen ezaugarriak garatu zituzten 1839-1876 artean. Baina federalismo faktiko hori euskal liberal moderatuen agintepean garatu zen, auzi desberdina izanik talde errepublikar federaletan agerpena. Azken horiek Seiurteko Demokratikoaren aitzinean agertu ziren. Lan honetan euskal errepublikanismoan garatutako federalismo foruzalearen hiru mugari aztertu ditugu: Jamarren *Lo que es el Fuero* liburuska (1868); Araba, Bizkai, Gipuzkoa eta Nafarroako federalisten arteko *Pacto vasco-navarro* (1869); eta Arreseren *La descentralizacion universal* obra (1873). Hiruretan antzeko ideiak aurki ditzakegu:

Euskal federalistentzat Foruak sistema demokratikoaren eta gobernu errepublikarraren aurrekariak ziren. Foruen mantentzea defendatzen zuten Espainia federal batean. Izatez, euskal probintzien ordura arteko lotura Estatu zentralarekin federala zen, eta beraz federazioaren adibide. Foruek errepublikar federalen gainerako helburu nagusiak ere jasotzen zituzten: lurraldeen eta udalerrien autogobernua, subiranotasunaren herritar jatorria, demokrazia, botereen banaketa, kargu publikoen kontrola eta hautaketa, botere zibilen eta erlijiosoen independentzia, norbanakoen eskubideak eta merkatu askatasuna, besteak beste. Ondorio horietara heltzeko Foruen irakurketa aurrerakoa egiten zuten, zuzenbide historiko honen moldakortasuna baliatu eta esangura tradizionalak ikuspegi errepublikarretik interpretatuz. Interpretazio-lan horretan, sarri, Forua idealizatu egiten zuten, eta ohikoa zen idealizazio horiek sinestea. Forua ez zela akats gabea onartzen zen inoiz, baita hura hobetzeko aukera zegoela ere, batik bat elementu feudalak kentzera begira; baina gero ez zen argi gehazten aldaketa hori nola edo noraino burutu gura zen.

Kuriosoa da federalismo/foruzaletasun bikotean ideia sendoa foruzaletasuna zela baieztatzea eta ez alderantziz: federalismoa ez zen abiapuntutzat hartzen haren baitan Foruak sartzen zirela esateko; aitzitik, sistema hori federala zela ondorioztatzeko aztertzen ziren Foruak, eta Espainiaren federalizazioa eredu horren arabera egiteko gomendatzeko.

Azken puntu horrek lehenago landu gabe utzitako auzi bat erakusten digu: euskal federalisten ideologiari datzekion espainiar abertzaletasuna. Izan ere, Espainia euskal errepublikarren erreferentzia konstantea zen. Euskal errepublikarrak aurrerakoiak eta foruzaleak izanik, herritar ororen berdintasuna eta Foruak mantentzea gura zuten aldi berean. Horrek euskal antolaketa foralaren antzekoa Espainia osoan zabaldu nahi izatera zeramatzan. Zeren Foruen abantailak ez zituzten soilik berentzat nahi, baizik espainiar guztientzat. Era horretara gainera, espainiarrek

ordura arte pribilegio gisa ikusitako Foruak denen eskubide bihurtu eta haien biziraupena bermaturik geratuko zela zeritzen. Jamarrek, Arresek zein Eibarko itun federalak espainiar “ama-aberriarekiko” lotura (federala) maiz aldarrikatzen zuten, eta *nacion* hitza erabiltzen zutenean Espainiaz ari ziren (*soberania nacional, union con la nacion, asamblea nacional...*). Espainiar kontzientzia politiko hori *Laurac-Bat* egunkariaren lehen aleko pasarte honetan ikus dezakegu: «nosotros buscamos la solidaridad de nuestras hermanas provincias de allende el Ebro, porque todos somos parte de un todo, que es esta patria querida, nuestra muy amada España».

Kontrara, federalisten euskal kontzientzia politikoa ez zen landuegia. Euskal herrialdeetako bakoitzaren autogobernua defendatu ohi zuten, ez (Hego) Euskal Herriarena multzo bezala. Izan ere historikoki, euskal herrialdeetako bakoitzak zituen erakunde sendoak (Diputazioa, Batzar Nagusiak) ez (Hego) Euskal Herri osoak³³; Eta Arabak, Bizkaiak, Gipuzkoak eta Nafarroak Espainia baitan lau Estatu federatu gisako osatzen zituzten, ez Estatu federatu bakarra. Nolanahi ere euskal herrialdeen arteko elkartasun sentimendua hor zegoen, eta errepublikarregan ere bazuen islarik. Eibarko itun federala Hego Euskal Herriko lau probintzien artean egitea, eta euren egunkariak *Laurac-Bat* izena hartzea adierazgarria da. Horietan herri “vasco-navarro”-az mintzo ziren. Horrek ez zuen esan gura euskal Estatu federatu bakarra nahi zutenik. Jamar eta Arrese, bederen, beren probintzien autogobernuaz mintzo ziren, banako unitate gisa kokatuz Espainian. Baina euskal identitatea ere aipatzen zuten, Arreserentzat hiru probintziek osatzen zutena, “laurak bat” leloa guttiz finkatu gabe zegoela erakutsiz.

Tradizionalki euskal nortasun probintzialaren eta euskal nortasun komunaren artean ez zen aparteko lehiarik egon, baina 1873ko Konstituzio federalaren proiektuarekin arazo bihurtu zen. Printzipioz pentsa zitekeen Konstituzio harekin euskal herrialdeek ordura arte *de facto* azaldutako joera federalek azkenean estatu zentralaren aldetik erantzun egokia jasoko zutela. Baina euskal herrialdeak proiektu hartan txertatzeko orduan zailtasunak azaldu ziren. Izan ere, proiektu hark bere baitako Estatu federatuek gutxieneko neurri bat izatea nahi zuen, eta euskal herrialdeek, hainbestetan Estatu federatu eredu gisa aipatu izan zirenek, banan hartuta txikiegiak ziruditen. Hortaz Madrilen (hara nondik!), bereziki Emilio Castelarren ekimenez, Hegoaldeko lau euskal herrialdeak elkarrekin batzeko aukera defendatu zen, Estatu federatu bakarra osa zezaten. Euskal Diputazioek protesta egin eta beren indibidualitatea aldarrikatu zuten, beste probintziekin fusionatzeko aukera errefusatuz. Horrek ez zuen kentzen beren artean elkartasuna eta euskal identitatea konpartitzea, baina hortik erakunde bateratuen guraria ondorioztatu gabe. Euskal errepublikar federalistek ere ez zeukaten prest identitate probintziala eta euskalduna konbina zezakeen alternatiba garaturik, eta hola Diputazioen eta Madrilen artean zubi-lana egiteko aukera galdu zuten. Azkenean 1873an Konstituzio federalaren proiektua eztabaidatzean, Kongresuko diputatu nafarrek, beste hiru probintzietako diputatuen adostasunaz Nafarroa bere aldetik Estatu federatu gisa azaltzea lortu zuten. Araba, Bizkaia eta Gipuzkoa “Regiones Vascongadas” izenpean bilduta agertu ziren, argi geratu gabe Estatu federatu bakarra osatzen zuten ala izen bakarraren azpian hiru Estatu federatu izango ziren

33. Soilik Konferentzia zen nolabaiteko erakunde komuna, baina ez oso sendoa, Araba, Bizkai eta Gipuzkoaren jarduera koordinatzera mugatzen baitzen (cf. Agirreazkuenaga, 1995).

(akaso nolabaiteko erakunde komunekin)³⁴. Nolanahi ere, hiru probintzien elkartasuna, ahula izan arren, islaturik geratu zen Konstituzioaren proiektuan, haien batasuna lau herrialdeen artekoa baino sendoagoa zela frogatuz. Beharbada ez da kasualitatea 1873ko nafar diputatuek lau herrialdeen batasuna errefusatzea, beren artean ez baitzegoen 1869ko Itun federala sinatu zuen inor. Aldiz, itun hartako arabar, bizkaitar eta gipuzkoar bana bai aurki ditzakegu 1873ko Kongresuan. Haietako batek, Justo Maria Zabala gipuzkoarrak hiru probintzien batasuna onartu arren, aukeran lau herrialdeena nahiago zuela adierazi zuen, are gehiago euskaldunen loturak nazionalitate terminoetan agertuz³⁵. Edozein kasutan 1873ko Konstituzio federalaren proiektua, gauzatzeko astirik gabe, Espainiako lehen errepublikarekin batera erori zen hilabete gutxitan.

Bukatzeko, esan, dagokigun garaitik kanpo, aldi iraultzailearen ostean federalismo foruzaleak agerpide berririk izan zuela, bereziki Nafarroan Serafin Olaberen obrekin³⁶. Baina izatez Seiurteko Demokratikoaren ondoren, federalismo errepublikarrak jada ez zeukan aukerarik Espainian arrakasta lortzeko. Zentzu horretan kontuan hartzekoak dira Arresek eta Jamarrek beren liburuak agertu zituzten testuinguru desberdinak. Joaquin Jamarren lana garai itxaropentsu baten atarian argitaratu zen, 1868ko iraultzaren unean. Foruen eraketa azalduz, aro berri horretan abiatutako Espainiaren berregituraketan eredu bat erakutsi nahi zuen. Julian Arreseren obra 1873. urtean agertu zen, gainbehera zihoan garai iraultzaileari azken irtenbide bat emateko itxaropenaz. Adierazgarriak dira Arreseren liburuari amaiera ematen dioten azken hitzak (1873: 278-279). Berba horiek, Seiurteko Demokratikoak bizi zuen egoera agonikoa irudikatzen dute, aldi berean arestian azaldutako euskal federalisten foruzaleatasuna, euskal kontzientzia eta espainiar abertzaletasuna islatuz:

Y pues todo camina á la disolucion en la pátria de Recaredo, volvamos la vista á las instituciones vascongadas, que se salvan del general naufragio, como se salvaron de las águilas de Roma y del poder de la media luna.

Quizá ese país excepcional, el único rincón de Europa que milagrosamente ha conservado lengua sin madre, organizacion sin origen conocido, (...) esté reservado por el Omnipotente para ser la nueva arca que acoja en su seno los despojos del diluvio que amenaza á la trabajada España, y de donde torne á salir con nuevo brío y esplendor.

34. Madrilgo Kongresuan euskal herrialdeen antolaketaz gertatutako eztabaida zerean ikus daiteke: Paredes (1983: 119-123), Fuentes Langas (1988) eta Kintana Goiriena (1999: 72-77).

35. J. M. Zabala federalistak, Eibarko itunaren sinatzaile eta *Laurac-Bateko* kolaboratzaile zenak, hola hitz egin zuen diputatu zelarrik Madrilgo Kongresuan (1873.09.02): «Como siempre he sostenido, que la historia, la tradición, idioma, la raza, todo esto está allí recomendando la formación de un Estado [federativo], si no con las cuatro provincias que ha sido mi idea constante, a lo menos con las tres vascas», Luis Castells-ek aipatua (1985: 1286).

36. Olabek bere kabuz foruen interpretazio federalista egin zuen, baina bere foruzaleatasuna nafarra izan zen, hiru probintzietatik nahiko bereiztua. Olaberen bizitzaz cf. Paredes (1983). Haren obraz eta nafar federalismo foruzaleaz cf. Kintana Goiriena (1999). Azken artikulua hau apur bat mugatua geratzen da 1873ko nafar Estatu federatuaren auzia analizatzean, ezezagun baitu Fuentes Langas-ek (1988) gai berberaz lehenago egin zuen lana (biek paraleloki antzeko ondorioak erdietsi arren ikerketa hobe da Fuentes Langasena). Kintana Goirienak (1999: 82-97), aldiz, ekarpen zertxobait originalagoa egiten du 1883ko nafar Konstituzio federalaren proiektua aztertzean. Olabe federalistak nafar euskaroeekin izandako harremanez datu berri interesgarriak aurki daitezke in Nieva (1999: 162-175).

Bibliografía

- AA (1986): "Arrese, Julian", *Enciclopedia general ilustrada del País Vasco*, Auñamendi, Donostia, II. Tomoa, 588.
- Agirreazkuenaga, J. (1987): *Vizcaya en el siglo XIX: las finanzas públicas de un Estado emergente*, UPV-EHU, Bilbo.
- , (1993): *Gerra eta Bakea Euskal Herrian. Politikagintza lege zaharraren krisialdian*, Gaiak, Donostia.
- et al. (1993): *Diccionario biográfico de los parlamentarios de Vasconia. 1808-1876*, Eusko Legebiltzarra, Gasteiz.
- , (arg.) (1995): *La articulación político-institucional de Vasconia: Actas de las Conferencias firmadas por los representantes de Álava, Bizkaia, Gipuzkoa y eventualmente de Navarra (1775-1936)*, II. libk., Arabako Bizkaiko eta Gipuzkoako Foru Aldundiak, Bilbo.
- , (1999): "Las oportunidades de construcción del Estado liberal español: La 'España Foral'", *Ayer* **35**, 121-146.
- Arrese, J. (1873): *Descentralización universal ó el fuero vascongado aplicado a todas las provincias*, Imp. de Victoriano Suárez, Madril.
- A[sarta], U. (1986): "Jamar Domench, Joaquín", *Enciclopedia general ilustrada del País Vasco*, Auñamendi, Donostia, XXI. libk., 219- 220.
- Castells, L. (1985): "El sexenio democrático y su repercusión en Guipúzcoa", *Symbolae Ludovico Mitxelena Septuagenario oblatoe*, UPV-EHU, Gasteiz, 2. libk., 1271-1289.
- Clavero, B. (1985): *Fueros vascos. Historia en tiempos de Constitución*, Ariel, Bartzelona.
- , (1986): "Fuero en tiempos de Constitución: una suerte de federalismo", in AA, *Jornadas de Estudio sobre la actualización de los Derechos Históricos Vascos*, Bilbo, 238-253.
- , (1988): "Las Juntas vascas ante el advenimiento de la Constitución española", *Jornadas sobre Cortes, Juntas y Parlamentos del pueblo vasco*, Cuadernos de Sección. Derecho, Eusko Ikaskuntza, Donostia.
- , (1990): "Entre Revolución y Tradición: Constitucionalismo y Fuerismo", *Historia Contemporánea* **4**, 39-60.
- , (1997): *Happy Constitution. Cultura y lengua constitucionales*, Trotta, Madril.
- Fernández, T. R. (1985): *Los derechos históricos de los territorios forales. Bases constitucionales y estatutarias de la administración foral vasca*, Civitas – Centro de Estudios Constitucionales, Madril.
- Fernández Albaladejo, P. (1982): "Guipúzcoa, la recomposición de una sociedad" in J. C. Jimenez (koord.), *Estudios de Historia Contemporánea del País Vasco*, Haranburu, Donostia.
- Fernández Sebastián, J. (1988): "Republicanos vascos en vísperas de la revolución de 1868: federales y fueristas", *Cuadernos de Alzate* **9**, 16-30.
- Fuentes Langas, J. M. (1988): "El cantón federal navarro de 1873", *I Congreso General de Historia de Navarra*, Institución Príncipe de Viana, 305-317.
- García Sanz, A. (1985): *Republicanos navarros*, Pamiela, Iruñea.
- Hennessy, C. A. M. (1966): *La república federal en España. Pi y Margall y el movimiento republicano federal 1868-1874*, Aguilar, Madril.
- Herran, F. (1879): "Eúskaros contemporáneos. Julián Arrese", *Revista de las Provincias Eúskaras*, II. libk. **7**, 206- 211.
- Huici Urmeneta, V. (1980): "Arturo Campión. Aproximación a un vasco desconocido", *Muga* **9**, 56-65.
- Huici Urmeneta, V. eta Madariaga, J. (1989): *Euskal Herria egungo aroan: materiale eta agiriak*, 5. libk., Krisela-UNED, Bergara.

- Jamar, J. (1868): *Lo que es el fuero y lo que se deriva del fuero*, Establ. Tipográf. del Aurrerá, Donostia.
- Juaristi, J. (1998): *El linaje de Aitor. La invención de la tradición vasca*, Taurus, Madril. [1. arg. 1987]
- Kintana Goiriena, J. (1999): "Nafarroako foralitatea eta konstituzio federal proiektuak (1873-1883)", *Sancho el Sabio. Euskal kultura eta ikerketa aldizkaria* **11**, 69-100.
- Martínez Rueda, F. (1995): *Los poderes locales en Vizcaya. Del Antiguo Régimen a la revolución liberal*, UPV-EHU, Bilbo.
- Mina, M. C. (1981): *Fueros y revolución liberal en Navarra*, Alianza, Madril.
- Monreal, G. (1986): "Entidad y problemas de la cuestión de los derechos históricos vascos" in AA, *Jornadas de Estudio sobre la actualización de los Derechos Históricos Vascos*, Bilbo, 59-82.
- Nieva, J. L. (1999): *La idea euskara de Navarra, 1864-1902*, Euskara Kultur Elkargoa - Sabino Arana Fundazioa, Bilbo.
- Orense, J. M. (1859): *Los Fueros*, Impr. de A. Santa Coloma, Madril.
- Ortiz de Orruño, J. M. (1991): "Ricardo Becerro de Bengoa: su trayectoria intelectual", *Kultura* **3**, 43-57.
- Ortiz de Zarate, R. (1859): *Compendio foral de la provincia de Alava*, Bilbo.
- Paredes, F. J. (1983): *Serafín Olave, fuerista y republicano*, Colección Diario de Navarra 27. zenbk., Iruñea.
- Piqueras, J. A. (1996): "Detrás de la política. República y federación en el proceso revolucionario español", in M. Chust eta J. A. Piqueras (bil.), *Republicanos y repúblicas en España*, Siglo XXI de España, Madril, 1996, 5. or.
- Portillo, J. M. (1987): *Los poderes locales en la formación del régimen foral, Guipúzcoa (1812-1850)*, UPV-EHU, Bilbo.
- eta Ortiz de Orruño, J. M. (1990): "La Foralidad y el Poder Provincial", *Historia Contemporánea*, 107-121.
- Rubio, C. (1997): *Fueros y Constitución: lucha por el control del poder. País Vasco, 1808-1868*, UPV-EHU, Bilbo.
- Townson, N. (ed.) (1994): *El republicanismo en España (1830-1977)*, Alianza Universidad, Madril.
- Urquijo, M. (1994): *Liberales y carlistas. Revolución y fueros vascos en el preludeo de la segunda guerra carlista*, UPV-EHU, Bilbo.
- Zabaltza, X. (1991): "Zazpiak bat", *Jakin* **66**, 105-132.